Código de validación/*Balidazio kodea*
5J2S2W0Q6A611C3Z03E2

AYUNTAMIENTO DE ERMUA/ERMUKO UDALA
Fecha/Data 05-03-2019
Num./Zk. CIP/9/12/2019

*Gai Orokorren eta Udalbatzarrak aztertu beharreko gaien Informazio-batzordeak 2019ko martxoaren 05ean hartutako erabakiz Udalbatzarraren iritzipean jarriko da Eutanasiaren inguruan PSE-EE/PSOE alderdiak aukeztu duen mozioa onesteari buruzko ondorengo ebazpen proposamena, organo horrek, hurrengo bilkurara bertaratzen diren udal-korporazioko kideen gehiengo osoz, gaiari buruz erabaki dezan:*

Por la Comisión Informativa de Asuntos Generales y de Pleno celebrada el día 05 de marzo de 2019, se eleva al Pleno de la Corporación para que adopte acuerdo al respecto, en la primera sesión que celebre, por mayoría de los/as miembros de la Corporación presentes en la sesión de aquélla, sobre propuesta de resolución sobre la moción presentada por PSE-EE/PSOE relativa a la eutanasia.

*"Eutanasiaren inguruan PSE-EE PSOE udal taldeak aurkeztu duen mozioa jarraian idatzita dagoena, onestea:*

"Aprobar la moción presentada por PSE-EE PSOE sobre la Eutanasia que se transcribe a continuación:

***ERMUKO UDALBATZARRARI***

**AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE ERMUA**

*Portugaleteko Lorente Tellaetxe familiak narriadura-egoera larrian dagoen ama/emazte batek bere bizitzari amaiera emateko duen eskubidea planteatu du. Buru-argi zegoenean Maribel Tellaetxek behin eta berriz adierazi zuen ez zuela egun dagoen egoeran bizitzerik nahi, eta hala utzi zuen idatzita bere aurretiazko borondateen agirian. Bere familiakoek eskaera bat sareratu dute Charge.org plataformaren bitartez, beraien ama/emaztearen egoera eta nahiak azalduz eta eutanasia eskatuz. Eskaera horrek 158.000 sinadura baino gehiago bilduta ditu gaur egun. Honako idatziaren amaieran dago eskaera horren edukia.*

La familia Lorente Tellaetxe de Portugalete ha planteado el derecho que tiene su madre/esposa, que se encuentra en una situación de deterioro grave, a poner fin a su vida. Mientras estuvo lúcida, Maribel Tellaetxe expresó frecuentemente su deseo de no vivir en las circunstancias en las que actualmente se encuentra, y así lo dejó escrito en su documento de voluntades anticipadas (DVA). Su familia ha lanzado una petición a través de la plataforma Change.org en la que explica la situación y deseos de su ama, y solicita la eutanasia. Esta petición lleva a día de hoy recogidas más de 158.000 firmas de apoyo. Adjuntamos el texto de la petición al final de este escrito.

*Bakoitzaren biografia pertsonalaren azken ekitaldia da heriotza, horregatik bizitza duin bat edukitzeko eskubideak bere baitan hartzen du bizitzaren amaiera duina izatea ere. Azken urteotan gure ordenamendu*

Morir constituye el acto final de la biografía personal de cada uno/a, por lo que el imperativo de una vida digna alcanza también al fin de la misma, al fallecimiento. Los cambios introducidos en nuestro

*juridikoan egin diren aldaketak, 41/2002 Legearen bitartez bereziki, aurrerapauso handia izan dira, tratamendu medikua eman beharra mugatu eta bizitza mantentzea, baliabide teknikoen pentzutan barik, gaixoaren borondate autonomoaren mende utziz.*

ordenamiento en los últimos años, muy especialmente por la ley 41/2002, supusieron en su momento un avance importante al acotar el deber de tratamiento médico, supeditándolo a la voluntad autónoma del paciente y no a las posibilidades técnicas de mantener la vida.

*Zoritxarrez, Eusko Legebiltzarrak bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko 11/2016 Legea onetsi zuen arren, norbere bizitza segurtasunez, bakean eta minik gabe azkentzeko laguntza eskuratzea erabaki pertsonalak askatasunez hartzeko eremutik kanpora dago, interesdunaren iritziz geratzen zaion bizitza bizitzerik merezi ez duenean.*

Lamentablemente, a pesar de que el Parlamento Vasco aprobó la Ley 11/2016 de Garantía de los derechos y de la dignidad de las personas en el proceso final de su vida, la obtención de ayuda experta para finalizar la propia vida de un modo seguro, pacífico e indoloro permanece fuera del ámbito de la libre decisión personal cuando, a criterio de la persona interesada, la vida que resta no merece ser vivida.

*Ustezko ondasun bat– titularrak berak errefusatutako bizitza ez duin bat- juridikoki babesteko aitzakiaz indarreko Zigor Kodearen 143.4 artikuluan deskribatzen den egoera tamalgarrian dagoen norbaitek libreki, seriotasunez eta behin eta berriz eskatu duen laguntza ongilea eman duen pertsona askatasun-gabeziaz zigortzea are krudelkeria handiagoa da, gogoz kontra bizitzera behartzeagatik edota heriotza tragiko eta biolentora daramalako seguru.*

Castigar con penas privativas de libertad a quienes presten una ayuda benefactora solicitada libre, seria y reiteradamente por una persona que se encuentra en la lamentable situación que describe el artículo 143.4 del vigente Código Penal, so pretexto de la protección jurídica de un supuesto bien —una vida desprovista de dignidad que rechaza su titular—, constituye una crueldad añadida al obligarle a vivir contra su voluntad, o abocarle a una muerte trágica y violenta.

*2015eko ekainaren 12an Eusko Legebiltzarrak, lagundutako suizidioa despenalizatzeko. ez legezko proposamen bat onetsi zuen Gorte Nagusiak Zigor Kodearen 143.4 artikulua indargabetzera premiatuz.*

Con fecha 12 de junio de 2015 el Parlamento Vasco aprobó una proposición no de ley instando a las Cortes Generales a derogar el artículo 143.4 del Código Penal para despenalizar el suicidio asistido.

*Egun eutanasia arautzeko Lege Organiko Proposamen bat izapidetzen ari dira Diputatuen Kongresuan, hiltzeko laguntza eskatu eta eskuratzeko pertsonen eskubidea aitortzen duena. Proposamen horretan, Maribelek bezala aurretiazko jarraibideen dokumentu bat edo zerbait*

En la actualidad se está tramitando en el Congreso de los Diputados una Proposición de Ley Orgánica de regulación de la eutanasia que reconoce el derecho de las personas a solicitar y recibir ayuda para morir; dicha proposición contempla la eutanasia para personas en situación de incapacidad que hubieran suscrito con

*baliokidea izenpetu duten pertsona ezinduentzat planteatzen da eutanasia.*

anterioridad un documento de instrucciones previas o equivalente, como es el caso de Maribel.

*Duela urte asko arautu zuten gure inguruko herrialdeen esperientzia luzeak erakusten du biztanleria zaurgarrietan ez dela gauzatu batzuek legeztapena geldiarazteko argumentatzen duten eragin negatiboa Hainbat inkestatan azaldutakoaren arabera, hiritarrek, adin, sinesbide eta atxikipen guztietakoek, eutanasia arautzeko eskatzen dute.*

La experiencia acumulada en los países de nuestro entorno que regularon la eutanasia hace ya muchos años, indica que no se ha materializado el impacto negativo sobre las poblaciones vulnerables que algunos emplean como argumento para frenar la legalización. Como se ha manifestado en diversas encuestas, la ciudadanía, sin restricción de edad, credo ni adscripción política, reclama que la eutanasia se regule legalmente.

*Aurrekari horiek guztiak kontutan harturik Ermuko Udalak bidezkotzat jotzen du ondorengo erabakiak hartzea:*

Teniendo en cuenta estos antecedentes, el Ayuntamiento de Ermua considera oportuno que se adopte los siguientes acuerdos:

***MOZIOA***

1. *Ermuko Udalak Zigor Kodearen 143.4 artikuluan aurreikusitako jokabideen despenalizaziora premiatzen du Diptutatuen Kongresua.*
2. *Ermuko Udalak 26/2015 Legearen azken xedapenetatik bigarrena indargabetzera premiatzen du Diputatuen Kongresua.*
3. *Ermuko Udalak eutanasia arautuko duen Lege Organiko Proposamena presaz izapidetu eta onestera premiatzen du Diputatuen Kongresua, horrela pertsonek ziurtasunez, bakean eta minik gabe, behar den laguntzarekin, beraien bizitza amaitzea libreki erabaki ahal izatea bermatzeko.*

**MOCIÓN**

1. El Ayuntamiento de Ermua insta al Congreso de los Diputados a la despenalización de las conductas contempladas en el artículo 143.4. del Código penal.
2. El Ayuntamiento de Ermua insta al Congreso de los Diputados a la derogación de la disposición final segunda de la ley 26/2015.
3. El Ayuntamiento de Ermua insta al Congreso de los Diputados a la urgente tramitación y aprobación de la Proposición de Ley Orgánica de regulación de la eutanasia, que garantice que las personas puedan decidir libremente el momento y la forma de finalizar la propia vida de un modo seguro, pacífico e indoloro, con la ayuda necesaria.

*4. Honako erabakia Diputatuen Kongresuan eta Senatuan ordezkaritza duten alderdi politiko guztiei helaraztea.*

4. Dar traslado del presente acuerdo a los grupos políticos con representación en el Congreso de los Diputados y en el Senado."

***ERANSKINA (CHANGE.ORG PLATAFORMAN FAMILIAK EGINDAKO ESKAERAREN TESTUA)***

**ANEXO (TEXTO DE LA PETICIÓN DE FIRMAS EN CHANGE.ORG)**

*Duela 5 urte, Gabon-gauez… egarri handiarekin jaiki nintzen eta sukaldera joan nintzen baso bat ur hartzera. Argia pizterakoan amatxu ikusi nuen, bakarrik eta ilunetan. Atsekabe handiz negarrez ari zen, besoari amorruz hozka egiten ziola inork entzun ez ziezaion. Hurbildu eta besarkatu egin nuen. Ez dut gogoratzen zenbat denbora egon ginen elkarri besarkatuta eta biok negarrez ondokoa behin eta berriz esaten zidala:*

*— Maite zaitut, maite zaitut, maite zaituztet, barkatu mesedez, maite zaituztet, barakatu…*

*Apurka-apurka lasaituz eta arnasa berreskuratuz joan zen. Eskutik indarrez helduta ondokoa esan zidan adi-adi begietara begiratuz:*

*—Gauza bat agindu behar didazu: zuen izenen bat gogoratzen ez dudan egunean, nahastu egiten naizela, zuen izena ez dakidala ikusten duzuen lehenengo egun horretan… mesedez, ez ezazu itxoin zuetaz ahaztu, seme-alaba mduan ezagutu ez edota aita ezagutu ez dezadan arte. Egun horretan joaten lagundu behar didazu.*

*Horrelaxe egin nuen: hitz eman nion.*

*Nire amatxuk Maribel du izena, 75 urte ditu eta duela hamabi Alzheimerra diagnostikatu zioten. Emakume gogora, borrokalaria, lehoi-emeak bezala bere senarra, seme-alabak, familia, adiskideak, herria eta lurra*

Hace 5 años, en Nochebuena.... me desperté con mucha sed y me dirigí a la cocina para coger un vaso de agua. Justo antes de encender la luz, vi a mi amatxu sola y a oscuras. Lloraba desconsoladamente mientras se mordía el brazo con rabia para que nadie la oyera. Me acerqué y la abracé. No recuerdo el tiempo que estuvimos abrazados y llorando juntos mientras no paraba de repetirme:

—Te quiero, te quiero, os quiero, perdonadme por favor, os quiero, perdonadme...

Poco a poco se fue calmando y recuperando la respiración. Me agarró las manos con fuerza y mirándome fijamente a los ojos me dijo:

—Tienes que hacerme una promesa: el día que no recuerde uno de vuestros nombres, ese primer día que veas que os confundo, que no sepa como os llamáis.... por favor, no esperéis a que me olvide de vosotros, a que no os reconozca como hijos o que no reconozca a aita. Ese día me tienes que ayudar a marchar.

Y así lo hice. Se lo prometí.

Mi amatxu se llama Maribel, tiene 75 años y le diagnosticaron Alzheimer hace doce. Mujer fuerte, luchadora, defensora, cual leona, de su marido, de sus hijos, de su familia y amigos, de su pueblo y de su tierra.

*defendatzen dituena. Monogamoa baina denon ama. Bihotz zabalik bizi izan du bere bizitza eta maitatzen irakatsi zigun, berak izugarri maitatzen gintuela.*

Monógama, pero madre de todos. Vivió su vida a corazón descubierto y nos enseñó a amar, amándonos con locura.

*Ikaraz hartu zuen bere gaixotasunaren berri, baina ez zuen aurre emateko zalantzarik egin eta laster erabaki zuen ingeleseko eta euskarako eskolak hartzea, gaixotasunaren prozesua geldotzeko. Gudua luzea eta gogorra izan zen, baina azkenean gaixotasun honek beti irabazten du. Nire amatxuk ez daki nor naizen, ez gaitu seme-alaba legez ezagutzen eta gutxitan ezagutzen du 63 urtetan senarra izan duen gizona.*

Recibió la noticia de su enfermedad con pánico, pero no dudó en enfrentarse a ella y pronto decidió recibir clases de inglés y de euskera, ralentizando así, el proceso de la enfermedad. La batalla fue larga y dura, pero al final esta enfermedad siempre acaba ganando. Mi ama no sabe quién soy, no nos reconoce como sus hijos y pocas veces reconoce, al hombre con el que ha convivido 63 años, como su marido.

*Nire amatxuk ez ditu esandako arrazoiak aintzat hartzen, ez du logikarik erabiltzen, ez da esaldi oso bat osatzeko gai, hitz bakar bat ere ez du amaitzen. Hizkuntza propioa du. Ez da bakarrik janzteko gauza, bere etxera joan nahi du eta bertan dago, ezin du kalera bakarrik irten ez lukeelako inoiz itzultzen jakingo. Sarritan jaten eman behar diogu. Nire amak gainean egiten du txiza eta kaka, eta egunero garbitu eta aldatu behar da. Min handiak ditu, baina nongo mina daukan azaldu ezin duenez, ezin diogu lagundu. Sarritan malkoak darizkio bere begirada huts eta hits gabetik. Zer pentsatuko ote? "Laguntzeko eskatzen ari natzaio jende honi, eta onarpenez begiratu, besarkatu eta ferekatu besterik ez naute egiten… Baina zergatik ez didate laguntzen nire samin honetan?"*

Mi amatxu, no atiende a razones, no usa la lógica, no solo es incapaz de construir una frase completa sino que ni siquiera acaba una palabra. Se las inventa. Tiene su propio idioma. No se puede vestir sola, quiere irse a su casa cuando está en ella, no puede salir sola a la calle porque jamás sabría volver. Muchas veces la tenemos que dar de comer. Mi amatxu se mea, se caga, y hay que limpiarla y cambiarla todos los días. Sufre muchos dolores, pero como no puede explicar donde le duele, no podemos ayudarla. Muchas veces caen lágrimas de sus ojos vacíos y sin expresión. ¡Qué pensará!: «Esta gente a quien pido ayuda, que solo me mira con condescendencia, me abrazan y acarician, ¿por qué no me ayudan con mi dolor?»

*Inork ez daki norainoko inpotentzia sentitzen dugun gehien maite dugun emakumea negarrez eta min-keinuak eginez ikusten dugunean, laguntzeko gai ez garela.*

Nadie puede imaginar el grado de impotencia que sentimos al ver llorar y hacer gestos de dolor a la mujer que más queremos, sin ser capaces de ayudarla.

*Buru-agitasunik gabe ez bizitzea eskatu zuen, minez ez bizitzea eskatu zuen, gogoratu ezinik ez bizitzea eskatu zuen… Horrela ez bizitzea eskatu zuen. Eta halaxe*

Pidió no vivir sin lucidez, pidió no vivir con dolor, pidió no vivir sin poder recordar… Pidió no vivir así. Y así precisamente lo hizo constar en su Documento de Voluntades

*utzi zuen idatzita bere aurretiazko borondateen agirian, buru-ahalmen osoa zuenean. Baina guk ezin dugu bere borondatea bete, Estatuak nire amak sufritzen jarraitu behar duela ezarri duelako.*

Anticipadas (DVA) cuando estaba en plenas facultades mentales. Pero nosotros no podemos cumplir con su voluntad porque el estado determina que mi ama debe seguir sufriendo.

*Jendeak esaten dit nire amari bizitza kenduko banio kontzientzia alhadura izango nukeela nire bizitza osaorako. Alhadura orain daukadana, nire amari horrela bizitzen uzteagatik, edo hobeto esanda, nire amaren gorputza bizirik mantentzeagatik.*

La gente me dice que si le quitase la vida a mi madre, ese acto me generaría un remordimiento de por vida. El remordimiento es el que tengo ahora por permitir que mi madre viva así, o mejor dicho, por mantener el cuerpo de mi madre con vida.

*Espainiako Konstituzioaren 15. artikuluak honela dio:"Pertsona guztiek bizitza eta osotasun fisikoa eta moralerako eskubidea dute, eta inoiz ezin dira meneratu torturetara ez eta zigor edo tratu ezgizakor edo itsusietara. Heriotza zigorra baztertua geratzen da, salbuespen bezala gerrateetarako Armadako zigor legeek zer erabakitzen duten albo batetara utziz".*

El artículo 15 de la Constitución española dice así: «Todos tienen derecho a la vida y a la integridad física y moral, sin que, en ningún caso, puedan ser sometidos a tortura ni a penas o tratos inhumanos o degradantes. Queda abolida la pena de muerte, salvo lo que puedan disponer las leyes penales militares para tiempos de guerra».

*Zer da heriotza bizitzaren azken unea baino? Ez al da heriotza bizitzaren zati? Pertsona orok bere bizitza errespetatua izateko eskubidea baldin badu, zergatik ez da errespetatzen nire amak bizitzen jarraitu nahi ez izateko daukan eskubidea?*

¿Qué es la muerte más que el último momento de la vida? ¿Acaso la muerte no forma parte de la vida? Si toda persona tiene derecho a que se respete su vida, ¿por qué no se respeta el derecho que tiene mi ama a no querer seguir viviéndola?

*Espainiar Gobernuak ba dauka lege bat zigor kodean eutanasia praktikatzen dutenei aplikatzekoa, eta askatasunaz gabetzeko 2 eta 8 urte bitarteko zigorra ezartzen du. Oker ez banago, Espainiar Konstituzioak, Francoren heriotzaren ondoren eginak, Estatu Espainiarra erregimen diktatorial batetik estatu sozial, demokratiko eta zuzenbidezkora pasatzen lagundu zuen, eta ASKATASUNA, JUSTIZIA ETA BERDINTASUNA ordenamendu juridikoaren maila goreneko balio moduan defendatzen ditu. 2 eta 8 urte bitarteko askatasun gabeziaz zigortu behar al naute nire amaren askatasuna defendatzeagatik*

El gobierno español incluye una ley en el código penal que hace referencia a aquellas personas que practican la eutanasia, aplicándoles una condena de privación de libertad entre 2 y 8 años. Si no me equivoco, la Constitución española, que se creó tras la muerte de Franco, permitió que el estado español pasase de un "régimen dictatorial" a un "estado social y democrático de derecho", que propugna como valores superiores del ordenamiento jurídico "LA LIBERTAD, LA JUSTICIA y LA IGUALDAD". ¿Me van a castigar a mí con una privación de libertad de 2 a 8 años, por defender la libertad de mi ama?

Código de validación/*Balidazio kodea*
5J2S2W0Q6A611C3Z03E2

*Hain ezjakinak al dira gure politikoak ez dakitela bururako eta gorputzerako guztiz mingarriak eta sendabiderik gabeko gaixotasun terminal eta endekapenezkoak dituzten milaka gaixoren sufrimenduaren berri? Hala bada ez lirateke jarleku horietan egon beharko. Beraiek dira nire ama halako giza-degradazio egoeran eta etengabeko minez bizitzera behartzen duen legearen egileak. Bi aukera ditut:*

*1. Nire ama librea da, sufritzeari utziko dio, heriotza duina izango du baina ni espetxera joango naiz. 2. Ni libre izango naiz baina nire amak atsedenik gabe sufritzen jarraitu beharko du.*

*Ezingo nituzke nik beraiek salatu nire amatxuri jasanarazten ari zaizkion torturaren antzerako sufrimenduarengatik?*

*Ezinezkoa da akonfesional moduan definitzen den estatu batek eliza katolikoari zuzenean lotutako oinarri moral eta fisikodun legeak edukitzea. Nork irakatsi behar dizkit niri etika eta morala? Erlijio hori ordezkatzen duen erakundeak? Benetan? Homosexualak eta lesbianak gaixotasun bat daukatela esaten duen erakunde horrek? Preserbatiboa erabiltzen ez uzteagatik Afrikan, HIESak jota, milioika pertsona hiltzen diren artean kastitate zentzugabea defendatzen duen erakunde batek?*

*Umeenganako abusuak ezkutatzen eta bere kideek egintza pederastak egiten jarrai dezatela uzten gizaldiak daramatzan erakunde bat al da etika eta morala zer diren esan behar duena? Benetan?*

*Zuei, eliza eta gobernukooi: Nork eman dizue bizitzeko edo hiltzeko eskubidea bezalako gauza pertsonal bat inoren izenean erabakitzeko ahalmena? Nortzuk zarete zuek nire amak hil artean sufritzera jarraitu behar duela ezartzen duen lege bat*

¿Acaso tenemos unos políticos ignorantes, que no conocen el sufrimiento de miles de pacientes con enfermedades terminales y degenerativas, terriblemente dolorosas mental y físicamente y que no tienen cura alguna? Si es así, no deberían ocupar esos puestos. Ellos son los creadores de una ley que obliga a mi ama a esta degradación humana y ese dolor continuo. Solo me dan dos opciones:

1. Mi madre es libre, deja de sufrir, tiene una muerte digna y yo voy a la cárcel. 2. Yo soy libre, y mi madre sigue sufriendo sin descanso.

¿No podría yo denunciarles a ellos por conductas análogas a la tortura hacia mi amatxu?

No puede ser que un estado que se declara aconfesional, tenga leyes con bases morales/éticas directamente vinculadas a la iglesia católica. ¡¿De verdad la institución que representa esta religión me va a dar lecciones de ética y moral?! Una institución que afirma que los homosexuales y las lesbianas sufren de una enfermedad. Una institución que defiende una absurda castidad mientras millones de personas mueren de sida en África por no permitir que se usen preservativos.

¡¿De verdad que la institución que lleva siglos ocultando los abusos de niños y permitiendo que sus miembros sigan cometiendo actos pederastas va a ser quien dictamine lo que es ético y moral?!

A ustedes iglesia y gobierno ¿Quién les ha otorgado el poder de decidir por los demás, algo tan personal como su derecho a vivir o morir? ¿Quiénes son ustedes para decidir una ley que obligue a mi madre a sufrir hasta su muerte? No confundan el derecho

*erabakitzeko? Ez nahastu bizitza-eskubidea bizitzeko eskubidearekin! Nahikoa da! Zuek ezin duzue eskubide hori eduki! Ez dagokizue-eta".*

a la vida con el derecho a vivir. ¡Ya basta! Ustedes no pueden tener ese derecho. No les corresponde".

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 6* | PSE-EE/PSOE: A favor 6 |
| *EH Bildu: Aldekoak 1* | EH Bildu: A favor 1 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 2 Abstenzioak 1 (ez zegoen)* | EAJ/PNV: A favor 2 Abstenciones 1 (ausente) |
| *PP: Kontrakoak 2* | PP: En contra 2 |
| *Irabazi: Aldekoak 1* | Irabazi: A favor 1 |

Fdo./Sin.:
Secretaria/Idazkaria
Mª Mar Arranz Olmos
06-03-2019 14:07